

BAKARRIK DAUDEN EMAKUME HAURDUNENTZAKO EDO SEME-ALABAK DITUZTENENTZAKO HARRERAZENTROAK

Garrantzitsua

Adi: hemen Gizarte Zerbitzuei buruzko informazioa baino ez duzu aurkituko.

Hau da, beste baliabide batzuei buruzko informazioa bilatzen baduzu, hala nola Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari (DSBE) buruzkoa, familientzako kontziliazio-laguntzei buruzkoa, adingabeak eskolatzeari buruzkoa edo osasun-zerbitzuetarako sarbideari buruzkoa, Hezkuntza, Familia eta Haurtzaroa, Osakidetza edo Lanbideren atarietara jo behar duzu informazioa jasotzeko.

Webgune honetan jasotzen diren prestazioez gain, udal bakoitzak eta aldundi bakoitzak beste zerbitzu eta prestazio batzuk izan ditzakete Gizarte Zerbitzuen arloan.

Arriskuan dauden adingabeak dituzten familiak > Krisi edo zaugarritasun egoeran dauden familiei laguntzea

Fitxa osoa kontsultatzen ari zara. [Hemen informazio laburtua.](#)

Zertan datza zerbitzu hau?

Zentro horiek arreta, babesa eta ostatua ematen diete haurdun dauden emakumeei edo beren kargura adingabeko seme-alabak dituztenei, bazterkeria-egoera larrian daudenei, baliabide pertsonalik eta laguntzarik ez dutenei zuzendua ([2.4.6 fitxa](#)).Egonaldi ertaineko zentroek laguntza intentsiboa eskaintzen dute, esku-hartze psikosoziala, gizarte-hezkuntzako eta gizarte-laguntzako barne, genero-ikuspegitik eta emakumeen ahalduntzea bultzatzen duen ikuspegi psikosozialarekin.Horretarako, esku-hartze sozioedukatibo eta psikosozialean espezializatutako talde tekniko baten presentzia iraunkorra dute.Bere helburuak honako hauek dira:

- Babesgabetasun- edo bazterkeria-egoeran dauden emakume haurdunei edo seme-alabak dituztenei ostatua eta aldi baterako laguntza ematea.
- Ingurune segurua eta laguntza egokiak eskaintzea beharrezkotzat jotzen dituzten aldaketei aurre egiteko.
- Beharrezko aholkularitza, informazioa eta laguntza eskaintzea.
- Autoestimua mantentzen eta/edo berreskuratzen laguntzea, baita bizitza autonomia garatzeko eta gizarteratzeko ibilbidea bideratzeko trebetasunak ere.
- Laguntza eta babes soziala ematea, modu intentsiboan, norberaren beharren arabera.
- Segurtasun-sentimendua indartzea.

Helburu horiek lortzeko, informazio-, orientazio-, balorazio-, diagnosi-, hezkuntza-zerbitzuak eta esku-hartze psikosozialak eskaintzen dira. Otordu-zerbitzua, garbitegia eta eremu komun

garbiketa barne har ditzakete.

Nork jaso dezake zerbitzu hori?

Haurdun dauden edo beren kargura seme-alaba adingabeak dituzten eta **baztertzeko arrisku larrian dauden emakumeak** eta, baliabide pertsonalik eta laguntzarako sare soziofamiliarrik gabe. Familia-unitateari eusteko helburuarekin, emakume erabiltzaileen mendeko pertsonak eta haiekin bizi direnek ere erabili ahal izango dute zerbitzua, beren ardurapeko seme-alabak izan nahiz mendeko beste pertsona heldu batzuk izan.

Zein baldintza zehatz bete behar dira zerbitzua eskatzeko?

- Haurdun dauden emakumeak edo beren kargura adingabeko seme-alabak dituztenak, bazterkeria egoeran daudenak eta laguntza-sarerik ez dutenak.
- 18 urte edo gehiago izatea (edo adingabe emantzipatua izatea).
- Iraupen ertaineko laguntza intentsiboa, integrala eta espezializatua behar izatea.

Zenbat balio du zerbitzuak?

Doako zerbitzua.

Nori dagokio zerbitzu hori ematea?

Foru Aldundien ardura da zerbitzua ematea.

Non eska dezaket zerbitzua?

Zure auzo, udalerrri edo eskualdeko **Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan**.

Zerbitzu honetan interesatuta bazaude eta gehiago jakin nahi baduzu, Gizarte Zerbitzuetan lan egiten duten pertsonekin hitz egin dezakezu. Nola funtzionatzen duen eta zerbitzu hori nola balia dezakezun azalduko dizute. Esaiguzu zure udalerrria eta harremanetarako lekuak eta datuak adieraziko dizkizugu.

Zer arauk ezartzen du zerbitzu hori?

Zorroaren jatorrizko fitxarako sarbidea

Informazio gehiago:

- [Bakarrik dauden emakume haurdunentzako edo seme-alabak dituztenentzako egonaldi ertaineko harrera Araban](#)
- [Bakarrik dauden emakume haurdunentzako edo seme-alabak dituztenentzako egonaldi ertaineko harrera Bizkaian](#)
- [Bakarrik dauden emakume haurdunentzako edo seme-alabak dituztenentzako egonaldi](#)

[ertaineko harrera Gipuzkoan](#)

[Fitxa laburrera itzuli](#)